

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BILARKO UDALA

Jendaurrean jartzea udal bideak eta landa bideak mantentzeko, hobetzeko eta kontserbatzeko 2025eko ekitaldiko erroldaren eta haren jakinarazpen kolektiboko ordaintzeko epearen onespena

Arabako foru sektore publikoaren tasa eta prezio publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoari jarraituz, jendaurrean jartzen dira honako hauek: errolda eta udalaren bideak eta landa bideak mantentzeko, hobetzeko eta kontserbatzeko tasa ordaindu behar dutenen 2025eko erroldaren zerrenda, zeina Alkatetzaren ebazpen bidez onetsi baitzen, 2025eko ekainaren 20an.

Horiek horrela, aipatutako erroldak hamabost egun baliodunez egongo dira ikusgai udal-letzeko idazkaritzan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdun orok aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak eta alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaizkien. Erreklamaziorik ez bada, behin betiko onetsitzat joko dira.

Erroldaren eta likidazioaren onespeneraren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio, ebazteko, organo eskudunari, eta horretarako hilabeteko epea izango da, jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

I. Ordaintzeko aldia. Borondatezko aldian ordaintzeko epea bi hilabetekoa izango da; hain zuzen ere, 2025eko urriaren 1etik abenduaren 1era. Borondatezko aldiko dirubilketa epea amaitu ondoren, betearazte aldia hasiko da zuzenean, ordaindu ez diren kuotetarako. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatzea, Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu bidearen kostuak ere, hala badagokio. Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituzten zergapekoek ez dute inongo izapiderik egin beharko eta 2025eko urriaren 1ean kobratuko zaie.

Helbideratu gabeko ordainketetarako, ordainagiria udal bulegoetan emango zaie zergapekoei, jendearentzako zerbitzu ordutegian, udalak Kutxabanken eta Laboral Kutxan dituen kontuetako batean dirua sartu edo banku transferentzia egin dezaten. Zergadunei ohartarazten zaie komeni dela zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea.

Bestalde, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak, Bilarko Udalean izapidetu beharko dira.

Epea bukatutakoan, premiamendu bidea hasiko da, eta ordaindu ez diren kuotak kobratuko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak ezarritako errekar-guarekin.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzaizkien argitaratzen da.

Bilar, 2025eko ekainaren 20a

Alkatea

ENRIQUE PÉREZ MAZO